

LURRAZPIKOAK

Gaizka Sarasola Iartzabal

Taberna bat iluntasunean. Kanpoko atetik agure bat sartzen da; Martin. Meatzarien kasko zahar bat du buruan, eta frontaleko linterna piztuta. Euritarako arropak ditu soinean eta aterkia eskuan. Txistu egiten ari da. Txistu luze eta ahula.

MARTIN: uuuuuuiiii..... uuuuuuuuuiiiiiiiii.....

Martinen atzetik adin berdintsuko beste bi lagun datoz; Pedro eta Lucas. Hauek ere meatzarien kaskoarekin, buruko argia piztuta. Hauek ere euritarako arropekin.

MARTIN : uuuuuuiiiii..... *(Ahots apalez)* Luciano! Psssst! Luciano! uuuuuuiiiii...Ei! Luciano! uuuuuuiiiii.....

Martinek atzera begiratzen du. Lagunak atzetik dituela konturatzean lasaitua hartzen du. Txistuka aurrera jarraitzen du.

MARTIN: uuuuuuiiiii.....

PEDRO: *(Haserre)* Martin! Zertan zabilta txistuka?

MARTIN: Lapurrak garelakoan eskopetarekin tiro egin ez gaitzan.

PEDRO: Etortzekoak garela badaki eta!

MARTIN: Berdin du. Badaezpada ere. Txistua aditzean lasaitua hartuko du. Non ikusi da lapurrak etxeetara txistuka sartzen?

PEDRO: Sartu igual ez, baina bat baino gehiago aterako zen etxeren batetik pozik eta lasai txistuka.

MARTIN: Edo ziztu bizian!

Berriz ere txistuka.

PEDRO: Joder!

MARTIN: uuuuiiiii... Lucianoooouuuuuiiiii.....

Hirurak mahai baten ingurura ailegatzen dira. Ondoan aterki eta txamarrak uzten dituzte. Lucas, lasai, aulki bat hartu eta mahaiaren bueltan esertzen da. Beste biek, urduri, mahaiaren inguruan bueltaka jarraitzen dute.

LUCIANO: Gabon!

Luciano azaldu da eskuargi eder batekin. Beste eskuan kea darion pitxerra dakar. Tabernako nagusia da. Edadetua hau ere. Maingu egiten du.

MARTIN: *(Erdi izuturik)* Kostatu zaizu Luciano! Lotan?

LUCIANO: Argirik gabe kafetera ez da martxan jartzetik. Sukaldean nintzen eltzean kafea egiten.

PEDRO: ¿Has oido Lucas? Cafe de puchero.

LUCAS: Bueno.*(Tabakoa atera eta zigarroa prestatzen hasten da.)*

LUCIANO: Ze giro kanpoan?

MARTIN: Ez da sumatzen barruan? Inoiz ere horrelako ekaitzik bizitu gabe!

LUCIANO: Tira, tira ... inoiz, inoiz ... *(Kafea mahaian utzi eta katilu eta edalontzien bila hurbiltzen da barrara.)* Gure adinean horrelakorik erratera ausartzea ere!

MARTIN: Bueno Aspaldian ez.

Martin ere barrara hurbiltzen da. Kartak, tapetea eta tantoak hartu eta mahaian prestatzen ditu jokorako.

PEDRO: Normala argia joatea. Eta ez bihar goizerarte moldatzerik espero! Giro honekin ez da lan egiterik!

MARTIN: *(Atsekabeturik)* Eta partiduaren erdian! Luzapenean egonen dira orain.

PEDRO: Irrati txiki hau ekarri dut.*(Poltsiko batetik irrati bat ateratzen du)* Baina ez dut pilarik! Luciano! Pilarik baduzu?

Luciano mahaira katiluekin hurbilduz. Argia mahaiaren erdian uzten du.

LUCIANO: Ez dakit. Ez dut uste. .. Baina pikutara irratia, eta pikutara futbola. Kafea badugu ... eta kartak. Banatu. Martin! Fariasa? *(Farias kaxa luzatuta)*

Martinek puru bat hartzen du. Lucas beretik erretzen ari da. Luciano eta Pedrok ez dute erretzen. Martinek purua pizten du. Pedrok kartak banatzen ditu.

LUCIANO: Mus.

LUCAS: Allá!

MARTIN: Eta?.....*(Kaskoko argiarekin kartak ezin ongi argituz. Kartak ezin ikusiz. Deseroso.)*Mus!

Lurak ere kartak ongi ikusteko zailtasunez .

PEDRO: Hasi!

LUCIANO: Ba.

LUCAS: Ba.

MARTIN: Paso.

PEDRO: Enbido!

LUCIANO: Tira. Ba.

LUCAS: Ba.

MARTIN: Enbido!

PEDRO: Eta?...Lucas?

Lucasek buruarekin ezetz.

LUCIANO: Pareak.

LUCAS: Llevo.

MARTIN: (*Ezin ikusiz*) Ez dakit ... Ze kristo! Ez dut ikusten! Argi ziztrin honekin!
Eta nire bistarekin.

PEDRO: Bi seiko Martin!

MARTIN: (*Haserre*) Kauen la ostia ez begiratu!

PEDRO: Joder! (*Eskuekin keinu eginez*) Horrela jartzen dituzu! Denen bistara!

MARTIN: Ez dut ikusten bestela!...Bueno. Bestela ere ez dut ikusten. Bizi guzian
ilunpetan lanean eta azkenerako erdi itsu.

Lucas eztulka hasten da.

LUCIANO: Betaurrekoak graduatu beharko dituzu.

MARTIN: Ba! Total!

Isilunea. Lau lagunak elkarri begira.

LUCIANO: Eta?

PEDRO: Paretara ere enbido!

Lucianok buruarekin ezetz.

LUCIANO: Jokorik ez.

LUCAS: Ez.

Martin berriro ere kartak ezin ikusiz. Zalantzan. Etsiturik Pedrori begiratzeko, galdezka bezala.

PEDRO: Ez duzu jokorik Martin!

MARTIN: Kauen la ostia! Ez begiratzeko! (*Haserreturik altxatu eta kartak mahaira botatzen ditu*). Mus eta alukeriak! Horrela ezin da jokatu! Pedrok kartak ikusten dizkit eta nik ez dut kartarik ikusten! (*Lasaituz*) Pilak Luciano. Ekarri pilak irratian partidua entzuteko.

Pedrok kartak biltzen ditu. Luciano zutitu eta barraren atzean ezkututzen da. Martin lasaitu eta berriro esertzen da. Kafea edaten du.

MARTIN: Bua! Gaztaina ura.

PEDRO: Zer?

MARTIN: Kafea! Gaztaina ura bezalakoa. Sustantziarik gabeko kafea.

PEDRO: (*Tragoxka bat hartuz*) Bai.Txarra.

Pedro barrara joaten da pattarra hartzera. Lucas eta Martin zigarroa eta purua ahoan elkarri begira. Pedro pattarrarekin itzultzen da eta lau lagunak kafeetan pixka bat zerbitzatu. Luciano agertzen da.

LUCIANO: Ez dut pilarik etxean. Partidurik ez!

Luciano ere esertzen da. Lau lagunak berriro ere mahaiaren bueltan.

PEDRO: Lastima.

LUCIANO: Bueno.

MARTIN: Tira.

LUCAS: Ba!

Isilunea.

MARTIN: Ba.

Isilunea.Lau lagunak kafea edaten.

PEDRO: (*Lucianori*) Eta?

LUCIANO: Zer?

PEDRO: Hobe?

LUCIANO: Zer?

PEDRO: Kafea.

MARTIN: Bai.

LUCAS: Bueno.

Isilunea.

LUCIANO: A! Kafea. *(Isilunea)* Ona dago?

LUCAS: Bai.

MARTIN: Ba.

Isilunea.

PEDRO: Oso ona.

LUCIANO: Tira, tira ... *(Isilunea)* Telediarioran eman dute Txinakoa.

PEDRO: Partiduaren atsedenaldira. Ikusi dut bai.

MARTIN: Hamar egun meatzean harrapaturik. Latza.

PEDRO: Joder.

Isilunea

LUCIANO: Guk ere ez genuen istripu gutxi jaso.

MARTIN: Lucasek batez ere.

PEDRO: ¡Eso Lucas! ¿Cuanto tiempo estuviste atrapado la última vez?

LUCAS: *(Pentsakor)* Sesentaiocho horas.

LUCIANO: Istripu hartan hil zen Benito. ¿No Lucas?

Lucasek buruarekin baiezkoa.

PEDRO: Goian bego!

LUCIANO: Meatzean lurperatua.

Isilunea.

PEDRO: Onik aterako dituzte azkenean.

MARTIN: Txinatarrak?

PEDRO: Bai.

MARTIN: Eta nola badakizu onik aterako direla gizagaixo horiek?

LUCIANO: Meatzetik ez da inor onik ateratzen. Bizirik igual bai, baina onik ez.

Lucas eztulka.

PEDRO: Telebistan erran dute. Kamerak omen daude beraiek noiz lur azaleratuko zain.

MARTIN: Kamerak?

PEDRO: Bai. Mundu guzitik.

LUCIANO: Ikuskizuna bihurtuko dute azkenean.

MARTIN: Edo pelikula bat egin!

PEDRO: Hori! Pelikula bat eginen dute azkenean!

LUCIANO: Zuek bai pelikulak!

MARTIN: Antzerkia bestela.

LUCIANO: Asperturik bizi behar du inork meatzarien teatroa ikustera joateko!

Kartak eskuetan hartu eta "solitarioan" jolasten hasten da Lucas.

PEDRO: Ezetz! Antzerkirik ez! Pelikula eginen dutela! Amerikanoek! Ikusiko duzue. Horien luxu eta fantasia! Zenbat argi, zenbat musika, zenbat eztanda ... bi lagun arriskuan, bat hil, bestea salbatu eta denak palomitak jaten!

MARTIN: Txino batenak egin du beraz! Ja!

PEDRO: Zenbat pelikula istripuekin, suteekin, lurrikarekin, gerrekin ...

MARTIN: Gerrenak dira ederrenak.

LUCAS: ¿ Tú que sabes?

Isilunea. Martinek purua itzali eta hautsontzian uzten du.

MARTIN: Komunera noa.

Mahai gaineke eskuargia hartu eta komunera abiatzen da.

PEDRO: Zertarako horrenbeste argi?

MARTIN: Pareak ere ez baditut ikusten, bakarra nola?

PEDRO: *(Irri bortxatua)* JA, JA!

Lucas makurtu eta mahai azpian zerbait bilatzen hasten da.

PEDRO: Zer falta duzu Lucas?

LUCAS: Erregea. Bastos.

PEDRO: *(Hau ere makurtuz)* Martinek botako zuen haserretu denean.

Pedro eta Lucas makurturik mahaiaren bueltan karta bila. Luciano ilunpean gelditu da eserita.

LUCIANO: Hemen ere egin zuten pelikula bat. *(Pedro eta Lucas Lucianori begira. Hauen buruko argiek bere aurpegia argitzen dute.)* Duela urte asko. Bueno... ez hainbeste ere. Dokumentala. Ama Lur. Egun batez. Neguan. Nire esaldi bat jarri zuten. Irudia ez dakit nirea ote zen. Ez dut gogoratzen. Esaldia bai. "¡Si no sale nada mejor aquí seguiremos!" Eta denak okerrera egin zuen. Andreak gurasoen herrira alde egin zuen, seme alabak berarekin eraman, erretiroa hartu aurretik mina hartu eta ezin meatzean beharrean jarraitu, eta sator-zulo hartatik taberna zulo hontara... betirako. Eta hemen ezin erretirorik hartu. "Si no sale nada mejor ...". Todo peor! *(Aulkitik altxatuz)* Ea pilarik aurkitzen dudan!

Luciano barraren atzean desagertzen da.

PEDRO: *(Oihuka)* Eta argia?

Pedro eta Lucasek karta bilatzeari berregiten diote. Martin agertzen da, eta beste biak lurtean belauniko ikusita, eskuargia mahaiaren utzi eta jolas moduan lagunen antzera ibiltzen hasten da.

MARTIN: Hau dugu meatzarien martxa beraz? Horrela egiten dugu orain martxa Madrilera!

PEDRO: Zer diozu?

MARTIN: Martxa! Meatzarien martxa! Erreguka. Lana erreguka. Kauen la sota de bastos! Erregutzeari borroka egitea deitzen zaio orain!

PEDRO: Sota ez. Erregea.

MARTIN: Nola?

PEDRO: *(Zutituz)* Ezer ere ez!

Pedro esertzen da. Lucas berriz ere eztulka hasi eta Martin hurbiltzen zaio altxatzen laguntzera. Lucas ere esertzen da. Lasaitzean tabakoa hartu eta beste zigarro bat prestatzen hasten da.

MARTIN: Bidean ditugu seme alabak esklaboen moduan lanean jarraitu ahal izateko erreguka. Eta gu begira, lurrazpiko iluntasunak itsuturiko begiokin.

PEDRO: Hainbeste ordu utzi ditugu lurpean. Hainbeste lagun gelditu dira lurpean.

MARTIN: Benito.

PEDRO: Benito eta ... *(Hunkituta)* Aita Gurea gehiegi.

Luciano azaltzen da barratik linterna txiki batekin.

LUCIANO: Ez dut pilarik. Denean begiratu dut eta ez dut pilarik.

MARTIN: Lehenago ere ez.

PEDRO: *(Hunkituta oraindik)* Joder!

LUCIANO: *(Hiru lagunei begira)* Zer?

MARTIN: Meatzean hildako lagunei buruz ari ginen.

LUCIANO: Benito berriz?

PEDRO: Goian bego.

MARTIN: Goian bai! Goiko zeruan nahi ditugu baina zulora sartzen ditugu gorpuak!

LUCIANO: Satorrek ateratzeko egiten dute zuloa, eta guk sartzeko.

PEDRO: Elkarren kontra beti.

MARTIN: Nekazariak aitzurrarekin satorrari burua lehertu arte!

Isilunea. Lucasek zigarroa pizten du.

LUCAS: Benito era un esquirol. Ese sí que era un miserable topo.

Isilunea.

LUCIANO: Kafea? *(Zutituz)* Kafe gehiago egingo dut?

MARTIN: Ez. Kaferik ez.

PEDRO: Niregatik ere ez, baina pattarra igual? E? Hori bai. Topa egin dezagun! (*Pattarra banatzen du guzientzat*) Guregatik!

Lau lagunek topa egin eta pattarra edaten dute.

PEDRO: Beste bat!

Pedrok edalontziak betetzen ditu.

MARTIN: Guregatik eta gure ondorengoengatik! Martxan Madrilera doazenengatik! Meatzariongatik!

Berriz ere pattarretik edaten dute.

PEDRO: Eta txinatarrengatik. Onik ez, baina bizirik atera daitezela.

Pedrok berriz ere edalontziak betetzen ditu.

MARTIN: Eta pelikulengatik!

Hirugarren tragoa jarraian.

PEDRO: Hori da! Pelikula egin dezatela amerikanoek.

Martin zutitu eta ondoan dauden aterkietako bat hartzen du fusila bailitzan.

MARTIN: Gerren pelikulak. Gerren pelikulengatik. Munduko hoberenak!

Zelatan dabilen soldadua bezala mugitzen da Martin tabernatik. Lucianok pattarra barrara eramaten du Pedroren begiradapean. Lucas komunera joateko zutitu da.

LUCAS: Tú y tus batallitas Martin. Tú y tus batallitas. En el pueblo, allá en Huelva, vivía Anselmo. Lo mandaron con la División Azul a luchar contra los rusos. Él, que había estado en la cárcel por rojo, luchando contra los rusos. Y volvió. Sobrevivió. Y siempre que podía contaba lo que había sido la guerra. Cuerpos escondidos en la nieve. Cada uno en su madriguera. Muertos de frío. Muertos de miedo. Esperando. Esperando a salir. Esperando cuando salir sin querer salir. Y luego, cuerpos entumecidos, torpes, tropezándose, cayéndose, sin saber disparar, sin saber a qué disparar, como disparar, disparos fallidos, muertes involuntarias..... ... No hay nada más mediocre que ver luchar a personas que no saben luchar,; lastimándose sin darse cuenta de como lo han hecho. Nada de épica. Solo miedo, dolor y silencio. Un poco de ruido, y un mucho de silencio. Eso decía Anselmo. Y aquí seguimos hoy día recordando batallas, jugando a soldaditos de plomo, recordando no sé que guerras para celebrar no sé que paz. Y así seguiremos.

Lucas komunera joaten da. Martinek bere ibilbideari berregiten dio. Aterkia fusila bezala, zelatan, eta txistuka oraingoan ere.

MARTIN: uuuuiiiii.... uuuuiiiii....

PEDRO: Joder.

MARTIN: uuuuuuiiiii.....

PEDRO: Arraro dago Lucas!

LUCIANO: Arraro? Ez uste. Beti izan da horrelakoa. Zurruna.

MARTIN: uuuuuuiiiii.....

PEDRO: Joder Martin!

MARTIN: Pelikularen batean ikusiko nuen. Soldaduak iluntasunean txistuka lagunek bertara tiro ez egiteko.

PEDRO: Etsaiek sumatu ezker botako zuten!

MARTIN: Hori bai.

LUCIANO: Lagunek non gauden jakitea ona da. Etsaiek jakitea ez. Baina okerrena, non gauden inork ere ez jakitea izanen da. Nonbait ba ote gauden jakitea.

MARTIN: *(Soldadutara jolasteari utziz)* Benito bezala. *(Mahaira hurbilduz.)* Zuek uste al duzue Lucasek ...?

LUCIANO: Ez dakit.

MARTIN: Arraroa izan zen. Arraroa gorpurik ez aurkitzea.

LUCIANO: Lurra gainera erortzen zaigunean ez dago aterabiderik.

PEDRO: Aspaldiko kontuak dira gainera.

MARTIN: Horregatik. Aspaldikoak direlako. Galdetuko bagenio?

LUCIANO: Lagunak ez dira guk jakin nahi duguna kontatzeko, beraiek isildu nahi dutena errespetatzeko baizik.

MARTIN: Bai, baina ...

LUCIANO: *(Haserreturik zutituz)* Aski da Martin! Aski da! Garai zailak ziren.

PEDRO: Gogoratzen dut bai; borroka garaiak.

MARTIN: Ordukoak bai borrokak!

PEDRO: Beti pentsatzen dugu gureak direla borrokarik gogorrenak.

Isilunea.

MARTIN: Lucas hain zen sutsua, eta Benito Benito berriz beti hain...

LUCIANO: Aski dela Martin! (*Isilunea*) Zer nahi duzu? Zer galdetzen duzu? Lucas gure artean dago. Laguna dugu. Eta aspaldian isildu ziren Benitoren aldeko kanpai-hotsak. Istripua izan zen; eta horrela bedi. Ez dakigu deus ere ez. Eta ez jakitea hobe. Lau egun geratzen zaizkigu lurrazalean. Lau egun, mus partida gutxi batzuk, beste futbol mundial bat gehien jota, puru bat, eta kafea. Edaterakoan azkena dela jakinen ez dugun azken kafea. Nahikoa mikatza berez. Gainazalean pasaeran gaude, baina lurrazpikoak gara gu ere; eta lurpean jasotzen dena lurpean gordetzea hobe. Sator lurrek ere ez dute kaltea besterik ekartzen. Kaltea baratzeetan, kaltea belardietan ... (*Komuna aldera abiatuz*) Denbora gehiegi darama komunean.

Luciano komunera doa. Martinek hautsontzian zegoen purua ezpainetan hartzen du. Isiltasuna.

PEDRO: Itzalita dago.

MARTIN: Horrela hobe.

PEDRO: Negua luze doa.

MARTIN: Betiko antzera.

Isiltasuna.

PEDRO: Lehengoan bilobekin hirian izan ginela kontatu nizun?

MARTIN: Ez.

PEDRO: Barraketan ibiltzen.

MARTIN: Eta?

PEDRO: Zerean ibili ginen ... "El tunel del terror"!

MARTIN: Ongi.

PEDRO: Momentu batean meatzean nintzela iruditu zitzaidan. Horrek eman zidan beldurrik gehien.

Luciano agertzen da komunetik.

LUCIANO: Hilda dago!

MARTIN: Lucas?

LUCIANO: Bai. Komunean aurkitu dut zerraldo.

Argiak pizten dira.

PEDRO: Azkenean!

Isiltasuna. Luciano, Martin eta Pedrok linterna eta eskuargi guziak itzaltzen dituzte.

PEDRO: Lucas hilda?

LUCIANO: Bai.

PEDRO: Nonbaitera deitu beharko dugu bada!

MARTIN: Nora? Nor? Zertarako? Etxean ez du inor zain. Bakarrik dago.

LUCIANO: Zegoen.

PEDRO: Medikuari bederen!

LUCIANO: Oraindik ez. Gau gogorra izan da. Utz diezaiozun jendeari deskantsatzen. Utzi lotan. Egunsentian Pedro!

PEDRO: Eta zer egingen dugu bitartean?

LUCIANO: Kafea egingen dut.

Luciano barrara joaten da.

PEDRO: Kafeterakoa Luciano! (*Isilunea*) Eta piztu irratia!

LUCIANO: Zertarako? Seguru penaltietara galdu dutela!

MARTIN: Ez piztu irratirik ez. Eta itzali argia ere! Begiak iluntasunera ohituagoak ditut.

PEDRO: Sator-begiak Martin!

MARTIN: Metamorfosia. Metamorfosia izanen da.

LUCIANO: (*Barratik*) Kafkaren aita ere meatzaria izanen zen agian! Hortik ipuinak!

MARTIN: Zenbat ipuin. Zenbat egi.

Lucianok argia itzaltzen du.

AMAIERA